Arduraz jokatzeko ingurumenerako heziketa
2011/2012 jarduerak

# LEHEN HEZKUNTZA



Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea

# Iruñerriko Mankomunitatea

**Chinchilla jenerala kalea, 7 (atzealdea)**
**31002 Iruña**
**Tel.: 948 423 285/194**
**Faxa: 948 423 230**
**Webgunea: www.mcp.es**

**Eskaerak kudeatzeko**
**Tel.: 948 203 444**
**E-posta: mcpactividades@gmail.com**




diseinua: www.rosetayoihana.com

BERRIA
*ONLINE*ko IZEN
EMATEA!

**WWW.MCP.ES**

**Jardueretan izena emateko, gure webgunearen bidez egin beharko da**

**Ikasturte honetan, jarduerak eskatzeko prozesua hobetze aldera, kudeaketa *online* egiteko aukera jarri dugu abian, gure webgunearen bitartez: www.mcp.es**

Ikusi informazio guztia 24. orrialdean.

**Eskaera *online* ezin baduzu egin, bidal dezakezu fax edo posta arruntaren bidez atzeko aldean dagoen fitxa beteta.**

Mancomunidad
Comarca de Pamplona
Iruñerriko
Mankomunitatea

Arduraz jokatzeko ingurumenerako heziketa
**JARDUERAK ESKATZEKO FITXA 2011/2012**

# LEHEN HEZKUNTZA

Ikastetxea

Telefonoa | Faxa | Posta elektronikoa

**Jardueren laburpena ikusteko, joan 22. orrialdera**

**Kodea** | **Jarduera**

Maila | Ikasle kopurua | Gazt. / Eusk. | Nahiago den data | Ordua

Taldeko arduradunaren izen-abizenak | E-posta baieztapena eta informazioa jasotzeko

**Kodea** | **Jarduera**

Maila | Ikasle kopurua | Gazt. / Eusk. | Nahiago den data | Ordua

Taldeko arduradunaren izen-abizenak | E-posta baieztapena eta informazioa jasotzeko

**Kodea** | **Jarduera**

Maila | Ikasle kopurua | Gazt. / Eusk. | Nahiago den data | Ordua

Taldeko arduradunaren izen-abizenak | E-posta baieztapena eta informazioa jasotzeko

Heziketako behar espezifikoak, ordutegi murriztapenak eta abar dituzten ikasleei buruzko oharrak:

“Ura” Programaren bisitetarako ikaslearen lan koadernoak jaso nahi ditugu
Bai / LH-ko 1. Kop:
Bai / LH-ko 2. eta 3. Kop:

**Eskaerak bidaltzea**. Eskaera-orria fotokopiatu eta bidali faxez edo posta elektronikoz:
- Fax bidez: 948 423 230 (Ingurumen-heziketarako programarentzat)
- mcpactividades@gmail.com

**Eskaerak jasotzeko azken eguna.** 2011ko urriaren 31 baino lehen.
**Baieztapena.** Astebeteko epean zure eskaera aintzat hartu dugun esango dizugu telefonoz.
**Informazioa.** Tel. 948 203 444.

Mancomunidad Comarca de Pamplona
Iruñerriko Mankomunitatea

**Arduraz jokatzeko ingurumenerako heziketa**

Eskolako Ingurumen-heziketarako Programa Iruñerriko ikastetxe, kolektibo eta partikularrei zuzendutako heziketa-eskaintza da. Xedea Urari, Hondakinei, Garraioari eta Iruñerriko ibai-parkeari lotutako jardueretan, kanpainetan eta prestakuntza prozesuetan parte hartzea da.


4. or.
## Nabarmentzeko moduko jarduerak eta baliabideak

8. or.
## Kontsumoa, hondakinak eta birziklapena

- Arte-sormena hondakinak erabilita: belardi bat
- Nik kontsumitzen dut eta 3R delakoak betetzen ditut
- Energiaz beteriko konpost-ontzia
- Nola egin paper birziklatua
- Hondakinik gabeko hamaiketakoa
- Gongorako HHTZ + hondakinen ingurumen ikasgela

12. or.
## Iruñerriko ibai-parkea

- Ezagutu parkearen bizia
- Paisaiak ibaiaren inguruan
- Urak errotak mugiarazten ditu: San Andres errota
- Ibai bat, mila erabilera: Atarrabiako pilategia

16. or.
## Ura: hornidura eta saneamendua

- Zer egiten dut ura zaintzeko?
- Zikloa naturan eta lur azpiko urak
- Uraren zikloa hirian
- Artetako iturburua + Egillorko edateko uren araztegia
- Eugiko urtegia + Urtasun-go edateko uren araztegia + Mendillorriko ur-biltegiak
- Artetako iturburua + IIHZ berria “Lur azpiko urak” + Egillorko edateko uraren araztegia
- Arazuriko araztegia + ohituren gaineko jarduera + paseoa Arga ibaian zehar
- Eugi eta natura-baliabideen aprobetxamendua
- Arteta, aberastasun handiko tokia

20. or.
## Hiri Garraioa eta mugikortasun iraunkorra

- Banator eta banoa
- Joan-etorriak eskualdeko hiri garraioan

22. or.
## Jardueren laburpena



## Zer helburu du?

Hezkuntza komunitateak ingurumenari buruzko kontzientzia eta horren inguruko interesa **hartzea**, baita egun dauden arazoetarako konponbideak bilatzeko zein etorkizunean agertu daitezkeenak saihesteko beharrezko ezagutzak, jarrerak, jokabideak, motibazioa eta nahia banaka zein taldeka eskuratzea ere. (Ingurumen-heziketaren xedea, Belgradeko Gutuna, 1975).

Ingurumen esperientzia eta programak egin daitezela **sustatzea**, Iruñerritik hurbileko ingurunean ezagutza eta analisi kritiko eta sormenezkoa helburu izanen dutenak.

Baliabide materialak eta aholkularitza tekniko eta didaktikoa **erraztea**, irakasleek zein ikasleek aipatu programak gauzatu eta euren informazio premiak bete ditzaten.

## Zer zerbitzu eskaintzen ditu?

**Dokumentazio zentroa**
Kontsulta eta mailegua

**Aholkularitza tekniko eta didaktikoa**
Irakasle eta ikasleei zuzenduta

**Material didaktikoen diseinua, koordinazioa eta edizioa**

**Sentikortasun-kanpainak eskola-esparruan**

**Ikastetxean hondakinak kudeatzeko baliabideak**
- Ontziak, papera eta pilak biltzeko edukiontziak eta zakuak
- Ikasgeletan papera birziklatu eta berrerabiltzeko paperontzi eta erretiluak
- Pilak biltzeko edukiontziak
- Materia organikorako konpost-ontzia, etab.
- Horma-irudiak, gaikako bilketaren eranskailuak, etab.

## Jarduera-programa

**Mankomunitateak kudeatutako instalazio eta espazioak bisitatzea**
Ibilbide gidatuak, instalazioak, eremuak eta sentikortasun-zentroak ezagutzeko helburu zehatza dutenak: burutzen diren prozesuak, funtzionamendua eta kudeaketa, ingurumenaren aldeko jarrera eta jokabideei buruzko hausnarketa ahalbidetzen duten jarduera osagarriekin batera.

**Tailerrak**
Lan proposamen dinamiko eta parte-hartzaileak, programa bakoitzeko eduki nagusiei buruzkoak, norberaren ardura eta erantzukizuna sustatzeko zein ingurumenaren aldeko jokabideak bereganatzeko.

**Jardunaldiak**
Goizeko saioak, instalazio batera edo ibai-parkera egindako bisitatik garatzen direnak; helburua eduki zehatzetan sakontzea da, sentikortasuna azpimarratuz eta jokabide eta ohitura arduratsuak sortuz.

**Bisitak ingelesez**
I+G programa baten barnean kokatuta, bertako irakasleek ingelesezko bisita gidatuak eskainiko dizkiete Bigarren Hezkuntzako ikasleei.






## Zer eduki lantzen dira?

- Uraren Ziklo Integrala / Hornidura eta Saneamendua
- Kontsumoa, Hondakinak, Konposta, Birziklapena eta Berreskuratzea
- Garraioa eta Mugikortasun Iraunkorra
- Iruñerriko ibai-parkea
- Ingurumen-heziketa
- Naturako eta Hiriko Ingurumena

## Parte-hartzearen datuak 2010-2011 aldiko emaitzak Iruñerriko zentroak

| | HAUR HEZKUNTZA | | LEHEN HEZKUNTZA | | BIGARREN HEZKUNTZA | | GUZTIRA | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Ikastetxeak | Ikasleak | Ikastetxeak | Ikasleak | Ikastetxeak | Ikasleak | **Ikastetxeak** | **Ikasleak** |
| **Hondakinak** | 34 | 1.638 | 65 | 8.746 | 47 | 5.726 | **146** | **16.110** |
| **Ibai-parkea** | 28 | 1.568 | 35 | 3.118 | 32 | 2.547 | **95** | **7.233** |
| **Ura** | 42 | 2.369 | 61 | 6.919 | 35 | 3.580 | **138** | **12.868** |
| **Garraioa** | | | 19 | 1.895 | 20 | 1.929 | **39** | **3.824** |
| **Guztira** | | | | | | | **128** | **40.035** |

# Nabarmentzeko moduko jarduerak eta baliabideak

**Kontsumoa, hondakinak eta birziklapena**

Baliabidea - **Gaikako bilketak ikastetxeetan**
Baliabidea - **Eskola-kanpaina: hamaiketakoaren hondakinak murriztea**
Jarduera - **Hondakinik gabeko hamaiketakoa**

**Iruñerriko ibai-parkea**

Bisita - **Bisita berria: Urak errotak mugiarazten ditu: San Andres errota**

**Ura: hornidura eta saneamendua**

Bisita - **Bisita berria: Eugi eta natura-baliabideen aprobetxamendua**
Bisita - **Ikasleen Gurasoen Elkarteei zuzendutako jarduera. Bisita berria: Artetako iturburua eta Egillorko edateko uren araztegia**
Baliabidea - **IIHZ berria *Lur azpiko urak Artetan***
Bisita - **Arteta, aberastasun handiko lekua**

**Orokorrak**

Baliabidea - **Irisgarritasuna instalazioetan**

Nabarmentzeko moduko jarduerak eta baliabideak

## Kontsumoa, hondakinak eta birziklapena

Baliabidea

### Gaikako bilketak ikastetxeetan

Ikastetxeetan, hondakinen ingurumen kudeaketa helmen handiko praktika da Ingurumen-heziketari dagokionez. Hondakinen murrizketan eta gaikako bilketan aktiboki parte hartzen duten ikasleek ingurumenarekiko errespetuzko eta ardurazko jarrera garatzen dute. Gainera, jarrera hori beste eremu batzuetara erraztasunez zabaltzen dute.

Programak ikastetxeen eskura jartzen du, ikastetxeetan paper eta ontzi bilketa kudeatzeko baliabide materialak zein hori ezartzeko eta garatzeko prozesuan beharrezkoa den laguntza teknikoa.

Triptikoa

### Gaikako bilketan parte hartzeko konpromisoa



Programan parte hartzeko eta laguntza baliabideak eskatzeko, ikastetxeek urtero berritu eta bidali behar dute parte hartzeko konpromisoaren inprimakia.

Gaikako bilketan parte hartzeko konpromisoa duen triptikoa ikastetxeari bidaliko zaio ikasturtearen hasieran. Internet bidez ere tramitatu ahal izanen da.

Baliabidea

### Eskola-kanpaina: Hamaiketakoaren hondakinak murriztea



Hamaiketakoan sortzen diren hondakinak murrizteko Boc'n rollek izan duten harrera ona zein ikastetxe batzuek "bokata-zorroa" hori ikastetxe osoan zabaltzeko egin duten eskaera ikusita, horren gastuaren %20ko diru laguntza emango du IMak bigarren urtez. Halaber, Boc'n rollaren diseinu grafiko pertsonalizatua (ikastetxearen slogan edo logotipoa) egiten ere lagunduko du.

Nabarmentzeko moduko jarduerak eta baliabideak

# Iruñerriko ibai-parkea

Jarduera

## Hondakinik gabeko hamaiketakoari buruzko tailerra

**Mailak** 1. 2. **3.** 4. **5.** 6.



Aluminiozko papera fabrikatzeak, erabiltzeak eta horren hondakinak kudeatzeak ingurumenean duen eraginari buruzko hausnarketa egingo dute ikasleek. Horrela konturatuko dira zer garrantzitsu den horren kontsumoa murriztea.

Tailer horren helburua da alternatibak eskaintzea eta konpromiso pertsonal bat gauzatzea hamaiketakoaren hondakinak murrizteko. Tailerraren proposamena da Boc'n rolla erabiltzea, hau da, berriz erabil daitekeen bilgarri bat erabiltzea.

LH-ko 5. mailarentzat eskaini zen jada, eta aurten erabiltzeko aukera zabalduko diegu LH-ko 3. mailakoei.

**JARDUERAREN FITXA 10. ORRIALDEAN**

Bisita

## Urak errotak mugiarazten ditu: San Andres errota

**Mailak** 1. 2. 3. 4. **5.** 6.



San Andres errota, 1541ean eraikia, Iruñerriko ibai-parkearen bazter lasai batean dago, San Andres uhartea. Arga eta Ultzama ibaien arteko lur-mutur bat da, Atarrabian.

Iruñerriko errota hidraulikoek, Erdi Aroaren hasieratik, ur-korrontearen indar zinetikoa baliatzen zuten ehotzeko harriak mugiarazteko.

Multzo hidraulikoa lehengoratuta, zentral hidroelektrikoa abiarazita eta garai bateko irin-fabrika berreraikita, garai batean ibaiaren inguruan zuen jarduera tradizionala berreskuratzen du San Andres errotak.

Bideoak, maketak eta jarduerak (ogia egitea, esaterako) dira LM-ko 5. mailako ikasleei zuzendutako baliagarrien osagarri.

**BISITAREN FITXA 14. ORRIALDEAN**

Nabarmentzeko moduko baliabideak

# Ura: hornidura eta saneamendua

Bisita

## Eugi eta natura baliabideen aprobetxamendua

**Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**



Urtegia 1966. urtean egiten hasi zen Iruñerriaren hazkunde demografiko eta industrialaren ondorioz, eta funtsezko aldaketa izan zen Eugiko bizitza eta fisionomian.

Urtegiko bazterretik ibilita eta Erreferentzia Historikoari buruzko Eugiko Zentroa bisitatuta, bertako natura baliabideen aberastasuna ulertzeko parada izanen duzue.

Urtasungo edateko uren araztegira egindako bisitarekin eta bertako gela-laborategian egindako jarduera batekin bukatuko da irteera, ura zaindu beharreko baliabidea dela ulertu eta gero.

JARDUERAREN FITXA 18. ORRIALDEAN

Ikasleen Gurasoen Elkarteei zuzendutako jarduera

## Artetako iturburua eta Egillorko edateko uren araztegia



Ikastetxeak ingurumenaren arloan sustatutako prestakuntza eta ekintzetan familien inplikazioa errazteko, Iruñerriko mankomunitateak doako bisitak egiteko aukera gehiago eskaintzen die Gurasoen Elkarteei.

Iazko ikasturtean hondakinei eta kontsumo arduratsuari buruz egin zen jarduerak oso harrera ona izan zuenez, aurtengo jarduerak uraren aldeko sentikortasuna landuko da.

Bisitan honako leku hauek bisitatuko dira: Artetako iturburua, *Lur azpiko urak* Ingurumen Informazio eta Heziketarako Zentroa, eta Egillorko Edateko ura tratatzeko zentroa –bertako teknologia eraginkorrei buruzko erakusketa barne–.

JARDUERAREN FITXA 18. ORRIALDEAN

Nabarmentzeko moduko jarduerak eta baliabideak
# Orokorrak

Baliabidea
## IIHZ berria *Lur azpiko urak Artetan*

**Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**



Ingurumen Informazio eta Heziketarako Zentro berrituak aukera berri batzuk eskaintzen ditu: erakusketak, maketak, ikus-entzunezkoen proiekzioak formatu handian eta birsorkuntza elkarreragileak.

Interpretazio zentrotik zenbait ibilbide has daitezke, iturburuaren ingurua modu librean ezagutzeko: Artazul sakana, Artetako gatzagak edo Ollarango itzulia.

**BALIABIDE HAU HONAKO JARDUERA HAUETAN DAGO:**

- 18. or: Bisita: Artetako iturburua + IIHZ berria *Lur azpiko urak* + Egillorko edateko uraren araztegia
- 19. or: Jardunaldia: Arteta, aberastasun handiko tokia

Bisita
## Arteta, aberastasun handiko lekua

**Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**



Hirugarren hiruhilekoan, Arteta, aberastasun handiko lekua bisitan Artetako iturburua eta IIHZ berria bisitatuko dira, eta, horiez gainera, interpretazio paseo labur bat emanen da Ollaranen eta garai bateko gatzagak bisitatuko dira.

Gatza erabiliz eginen diren esperimentu erraz batzuen bitartez errazago ulertuko da jatorrian itsasoak estaltzen zuela eremu hori.

**JARDUERAREN FITXA 19. ORRIALDEAN**

Baliabidea
## Irisgarritasuna instalazioetan



Mugikortasun urria duten pertsonak erraz sar daitezen Iruñerriko Mankomunitatearen instalazioetan, hainbat ekintza egin dira ikasturte honetan.

Zehatz-mehatz, igogailua dago jada honako zentro hauetan guztietan:

- IIHZ berria Lur azpiko urak Artetan
- Artetako iturburua: arrapala gorakor baten bidezko sarrera
- Egillorko edateko uraren araztegia
- Urtasungo edateko uraren araztegia
- Arazuriko araztegia
- Gongorako tratamendu zentroa
- Atarrabiako pilategia
- San Andres errota berria

# Arte-sormena hondakinak baliatuta: belardi bat

**Tailerra ikasgelan** **Mailak** 1. **2.** 3. 4. 5. 6.

Kodea **47** Iraupena **2 ordu** **Ordutegi librea** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Eremu natural baten konposizio plastikoa egitea ikasleek erabilitako ontziak baliatuta.

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Talde/gela bat tailer bakoitzean
- Ondoz ondoko bi tailer

**HELBURUA**
- Arte adierazpide kolektiboak sortzea ohiko hondakinak erabilita
- Hondakinak birziklatzea eta berrerabiltzea, kasu honetan ontziak

**BALIABIDEAK**
- Aurretik adostutako ontziak
- Kartoizko egitura inprimatua belardi bat birsortzeko

**BETEKIZUNAK**
- Zentroak eguneratua izan behar du Gaikako bilketan parte hartzeko konpromisoa (ikusi 4. orrialdea)

## Kontsumoa, hondakinak eta birziklapena

| | | |
|---|---|---|
| **Arte-sormena hondakinak baliatuta: belardi bat** | **Tailerra ikasgelan** | 1. **2.** 3. 4. 5. 6. |
| **Nik kontsumitzen dut eta 3R delakoak betetzen ditut** | **Tailerra ikasgelan** | 1. 2. **3. 4.** 5. 6. |
| **Energiaz beteriko konpost-ontzia** | **Tailerra ikasgelan** | 1. 2. **3. 4. 5. 6.** |
| **Nola egin paper birziklatua** | **Tailerra** | 1. 2. **3. 4. 5. 6.** |
| **Hondakinik gabeko hamaiketakoa** | **Tailerra ikasgelan** | 1. 2. **3.** 4. **5.** 6. |
| **Gongorako HHTZ + hondakinen ingurumen ikasgela** | **Bisita** | 1. 2. 3. **4. 5. 6.** |

**BERRIA! *ONLINE*ko IZEN-EMATEA!**
Jardueretan izena emateko, gure webgunearen bidez egin beharko da: **www.mcp.es**

# Nik kontsumitzen dut eta 3R delakoak betetzen ditut

**Tailerra ikasgelan** **Mailak** 1. 2. **3. 4.** 5. 6.

Kodea **63** Iraupena **ordu bat** **Ordutegi librea** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Guk sortzen ditugun hondakinen bidez 3R estrategia betetzeak ohitura arduratsuak garatzea ahalbidetzen du.

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Talde/gela bat tailer bakoitzean
- Ondoz ondoko zenbait tailer

**HELBURUA**
- Hondakinen produkzioan zein murrizketan kontsumitzaile protagonistak garela aitortzea

**BALIABIDEAK**
- Aurretik adostutako ontziak
- Kontsumo arduratsuari buruzko jarduera

**BETEKIZUNAK**
- Aldez aurreko prestaketa

# Energiaz beteriko konpost-ontzia

**Tailerra ikasgelan** **Mailak** 1. 2. **3. 4. 5. 6.**

Kodea **58** Iraupena **1.30 ordu** **Ordutegi librea** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Teknika erraza eta ekologikoa da konposta egitea, baratzean, lorategian edo jantokian sortutako hondar organikoak baliatzen dituena elikagaietan aberatsa den ongarria sortzeko. Elikagai horiek lurrarentzat onuragarriak dira.

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Talde/gela bat tailer bakoitzeko
- Ondoz ondoko bi tailer

**HELBURUA**
- Materia organikoaren bidez konposta nola egin eta eskolako konpost-ontzia nola zaindu behar den ezagutzea

**EDUKIAK**
- Konposta zer den eta nola sortzen den
- Ingurumenarekiko abantailak

**BALIABIDEAK**
- Power-point bidezko aurkezpena
- Jarduera ludiko eta didaktikoa
- Bisita ikastetxeko konpost-ontzira

**BETEKIZUNAK**
- Konpost-ontzi bat izatea
- Konpost-ontzi berriak telefonoz eskatzea (urriaren 31 baino lehen)

# Nola egin paper birziklatua

**Tailerra** **Mailak** 1. 2. **3. 4. 5. 6.**

Kodea **67** Iraupena **1.30 ordu** **Ordutegi librea** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Kontsumo arduratsuak eta paperaren berreskurapenak eta birziklapenak ingurumenari mesede handia egiten diote.

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Talde/gela bat tailer bakoitzean
- Ondoz ondoko bi tailer

**HELBURUA**
- Gaikako bilketaren eta paperaren birziklapenaren alde onak ezagutzea

**BALIABIDEAK**
- Basoen eta paperaren balioari buruzko proiekzioa
- Papera artisau moduan egitea

**BETEKIZUNAK**
Ikastetxeak eguneratua izan behar du paper bilketan parte hartzeko konpromisoa

# Hondakinik gabeko hamaiketakoa

BERRIA 3.

**Tailerra ikasgelan** **Mailak** 1. 2. **3.** 4. **5.** 6.

Kodea **49** Iraupena **ordu bat** **Ordutegi librea** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Hamaiketakoen ohiko bilgarriak izango dira abiapuntua. Horien kontsumoa murrizteare garrantziari buruzko hausnarketa egingo dute ikasleek.

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Talde/gela bat tailer bakoitzean
- Ondoz ondoko zenbait tailer

**HELBURUA**
- Hamaiketakoek sortzen dituzten hondakinak murrizteko konpromiso pertsonala

**EDUKIAK**
- Hondakinak murriztea
- 3R estrategia eta hamaiketakoen hondakinak murrizteko alternatibak

**BALIABIDEAK**
- Esperientzia martxan jartzeko eta horren jarraipenaren inguruko ekintza plana.
- Boc' n roll delakoak ematea

**BETEKIZUNAK**
- Hezitzaile bat talde/ikasgela bakoitzeko
- Aldez aurretik ikasgela erabiltzeko aukera izatea
- Ikastetxeak eguneratua izan behar du ontzien bilketan parte hartzeko konpromisoa

# Gongorako HHTZ + Hondakinen ingurumen ikasgela

**Bisita** | **Mailak** 1. 2. 3. **4. 5. 6.**

Kodea **52** Iraupena **3 ordu** Ordutegia **9,30** **Ikasturte osoa**




**DESKRIPZIOA**
Hezkuntza baliabide ezberdinak dituen Hondakinen Ingurumen Ikasgela ondokoen gaineko hausnarketa egiteko gunea da: hondakinak, hondakinen ekoizpena eta horien kudeaketa.

Murriztea, berrerabiltzea, birziklapena eta gaikako bilketa bezalako kontzeptuek egunerokoan gauzatzeko moduko dimentsio praktikoa hartu dute.

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko (60 ikasle)

**HELBURUA**
- Sortzen ditugun hondakinei egiten zaien tratamendua ezagutzea
- Kontsumo arrazoizko eta arduratsua sustatzea

**EDUKIAK**
- Gure kontsumoaren ondorio hurbil edo urrutikoak
- Gaikako bilketak eta hondakin mota desberdinen tratamendua

**BALIABIDEAK**
- Gaikako bilketa egiten den instalazioa eta kontrolpeko zabortegia bisitatuko dira
- Erakusketa iraunkorra: *Tximeleta efektua*. Hondakinen bitartez egindako arte kreazioak biltzen ditu
- Ikus-entzunezko eta maketa aretoa.
- Ontziak bereizteko uhal bat birsortuko da
- Supermerkatu bat birsortzen duen tailer-ikasgela, kontsumoa lantzeko

## Jarduerei laguntzeko baliabideak

Gida

### Baliabide eta jardunbide egokien gida



**Ikastetxe osoarentzako baliabidea**

Antolaketa eta gogoeta elementuak ekartzen dituen esku liburuxka da. Horren xedea ikastetxea ingurunera moldatzea da

Bisita gida

### Hiri-hondakinen tratamendua Iruñerrian



**Laguntza-gida bisita honetarako:**
- Gongorako zentroa.

Dokumentazioa, jarduerak eta ordenagailurako joko interaktibo bat biltzen ditu

# Iruñerriko ibai-parkea

| | | |
|---|---|---|
| Ezagutu parkearen bizia: Atarrabiako eremua | Bisita | 1. 2. 3. 4. 5. 6. |
| Ezagutu parkearen bizia: Barañaingo eremua | Bisita | 1. 2. 3. 4. 5. 6. |
| Paisaiak ibaiaren inguruan: Burlatako Nogalerako eremua | Bisita | 1. 2. 3. 4. 5. 6. |
| Urak errotak mugiarazten ditu: San Andrés errota | Bisita | 1. 2. 3. 4. 5. 6. |
| Ibai bat, mila era-bilera: Atarrabiako pilategia | Bisita | 1. 2. 3. 4. 5. 6. |

**BERRIA! *ONLINE*ko IZEN-EMATEA!**
Jardueretan izena emateko, gure webgune-aren bidez egin beharko da: **www.mcp.es**





## Ezagutu parkearen bizia: Atarrabiako eremua

Bisita — Mailak **1. 2.** 3. 4. 5. 6.

Kodea **310** Iraupena **2.30 ordu** Ordutegia **9,30** **1.-3. hiruhilekoa**

## Ezagutu parkearen bizia: Barañaingo eremua

Bisita — Mailak **1. 2.** 3. 4. 5. 6.

Kodea **311** Iraupena **2.30 ordu** Ordutegia **9,30** **1.-3. hiruhilekoa**



**DESKRIPZIOA**
Paseatzeak, behatzeak eta eremu berde horien balioa ezagutzeak errespetuz gozatzea ahalbidetzen dute.

**TOKIA**
- Atarrabiako jolas-eremua: Donapeko zaldaina
- Barañaingo jolas-eremua

**EGUNAK**
- Asteartetik ostiralera

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko
- Hiru talde bisita bakoitzeko ostiraletan

**HELBURUA**
- Ibai-parkearen inguruko izaki bizidunak ezagutzea
- Naturarengan errespetuz eta jolasen bidez hurbiltzea

**EDUKIAK**
- Iruñerriko ibai-parkea.
- Hainbat izaki bizidunen oinarrizko ezaugarriak.
- Ingurunea zaintzea.

**BALIABIDEAK**
- Paseo didaktikoa ibai-parketik
- Sentikortzeko jolasak

# Paisaiak ibaiaren inguruan: Burlatako Nogalerako eremua

**Bisita** **Mailak** 1. 2. **3. 4.** 5. 6.

Kodea **314** Iraupena **2.30 ordu** Ordutegia **9,30 1.-3. hiruhilekoa**



**DESKRIPZIOA**
Ibaiak paisaia itxuratzen du eta ibai ekosistema aberatsa sortzen du. Ingurune horretara hurbiltzeak zaintzearen garrantzia balioestea ahalbidetzen du.

**TOKIA**
- Nogalerako jolas-eremua eta Burlatako ur-biltegia

**EGUNAK**
- Asteartetik ostiralera

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko

**HELBURUA**
- Behatzeko gaitasuna garatzea
- Paisaia interpretatzen ikastea

**EDUKIAK**
- Iruñerriko ibai-parkea, gozatzeko eta zaindu beharreko ingurua
- Ibaiaren eta gizakiaren eragina paisaiaren bilakaeran
- Ibai-ekosistemaren hainbat izaki bizidunen oinarrizko ezaugarriak

**BALIABIDEAK**
- Paseoa paisaia interpretatzeko
- Burlatako ur-biltegiko behatokia
- Izaki bizidunak ezagutzeko gakoak

## Jarduerei laguntzeko baliabideak

Bisita gida

### Bizia ibai-parkean

BERRIA



**Laguntza-gida bisita hauetarako:**
- Ezagutu parkearen bizia
- Paisaiak ibaiaren inguruan

Ibai-parkeari buruzko dokumentazioa eta jarduera-koaderno bat biltzen ditu

Lan-koadernoa

### Ibai-parkea esploratu



**Baliabidea honako jarduera honen barnean dago:**
- Ezagutu parkearen bizia

Landa-koadernoa taldean lantzeko

# Urak errotak mugiarazten ditu: San Andres errota

BERRIA

**Bisita** **Mailak** 1. 2. 3. 4. **5.** 6.

Kodea **330** Iraupena **2.30 ordu** **Ordutegi librea** **Ikasturte osoa**





**DESKRIPZIOA**
San Andres errotako multzo hidraulikoak, Atarrabian, Arga ibaiaren uraren energia baliatzen du elektrizitatea sortzeko; garai batean garia ehotzeko erabiltzen zuen, irina ekoizten baitzen bertan.

**TOKIA**
- San Andres uhartearen ingurua, Atarrabian
- San Andres errota

**EGUNAK**
- Astelehenetik ostiralera

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko

**HELBURUA**
- Uraren energia baliatzeko aukerak ezagutzea
- Irin-errota tradizional baten funtzionamendua ulertzea

**EDUKIAK**
- Ingurua eta multzo hidraulikoa interpretatzea: presa, ubidea eta errota.
- Uraren indarra: zentral hidroelektrikoa eta irin-errota
- Ogia egiteko artisau-prozesua

**BALIABIDEAK**
- Paseoa ingurua interpretatzeko
- San Andres errota: zentral hidroelektrikoa eta irin-errota
- Irina ehotzeko eta ogia egiteko tailerra

# Ibai bat, mila erabilera: Atarrabiako pilategia

**Bisita** **Mailak** 1. 2. 3. 4. 5. **6.**

Kodea **316** Iraupena **2.30 ordu** Ordutegia **9,30** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Egun, Iruñerriko ibai-parkearen Sentikortzeko Zentroa bihurtu da toki hori. Ekologia eta historia nahasten dira bertan.

**TOKIA**
- Atarrabiako pilategia eta ingurua

**EGUNAK**
- Asteartetik ostiralera

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko

**HELBURUA**
- Ibaiaren ohiko erabilerak eta ibai-parkea ezagutzea

**EDUKIAK**
- Iruñerriko ibai-parkea, ibaia eta bere ingurunea natur eta historia ondare gisa
- Ibaiaren antzinako erabilerak

**BALIABIDEAK**
- Pilategia bisitatzea: Ibaiaren oparia erakusketa, bideoa, maketak eta pilategiaren antzinako erabileren erakustaldia:ehunak pilatzea, ehungailua eta paper-errota
- Pilategiaren natura- eta hiri-ingurunea interpretatzeko paseoa

## Jarduerei laguntzeko baliabideak

Bisita gida

### Iruñerriko ibai-parkea



**Laguntza-gida bisita honetarako:**
- Ibai bat, mila erabilera: Atarrabiako pilategia

Dokumentazioa eta jarduerak biltzen ditu

# Ura: hornidura eta saneamendua

| | | |
|---|---|---|
| Zer egiten dut ura zaintzeko? | Bisita | **1. 2.** 3. 4. 5. 6. |
| Zikloa naturan eta lur azpiko urak | Bisita | **1. 2.** 3. 4. 5. 6. |
| Uraren zikloa hirian | Jardunaldia | 1. 2. **3. 4.** 5. 6. |
| Artetako iturburua + Egillorko edateko uren araztegia | Bisita | 1. 2. **3. 4.** 5. 6. |
| Eugiko urtegia + Urtasungo edateko uren araztegia + Mendillorriko ur-biltegiak | Bisita | 1. 2. **3. 4.** 5. 6. |
| Artetako iturburua + IIHZ berria *Lur azpiko urak* + Egillorko edateko uren araztegia | Bisita | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |
| Arazuriko araztegia + jarduera + paseoa Arga ibaian zehar | Bisita | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |
| Eugi eta natura-baliabideen aprobetxamendua | Bisita | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |
| Arteta, aberastasun handiko tokia | Bisita | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |

**BERRIA! *ONLINE*ko IZEN-EMATEA!**
Jardueretan izena emateko, gure webgunearen bidez egin beharko da: **www.mcp.es**

## Zer egiten dut ura zaintzeko?

**Bisita** — **Mailak 1. 2.** 3. 4. 5. 6.

Kodea **26** Iraupena **2.30 ordu** Ordutegia **9,30** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Maketa erraldoi bat muntatuko da uraren hiriko zikloari buruz. Halaber, ura zaintzearen inguruan jolastuko gara. Bi jarduera horiei esker, hobeki ulertuko dugu zer garrantzitsu den ura zaintzeko horren gainean dugun jokamoldea.

**TOKIA**
- Mendillorriko ur-biltegiak

**EGUNAK**
- Asteartetik ostiralera

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko

**HELBURUA**
- Urak hiriko ziklotik egiten duen bidea aurkitzea
- Ura aurrezteko ohiturak bereganatzea egunerokoan

**BALIABIDEAK**
- Paseo didaktikoa parketik
- Bisita eta entzunaldia ur-biltegi zaharretan
- Jarduera: *Uraren bidea*
- Bideoa: *Ura zure laguna da*
- Jarduera: *Tantaz tanta*

**BETEKIZUNAK**
- Aldez aurreko prestaketa

## Zikloa naturan eta lur azpiko urak

**Bisita** — **Mailak 1. 2.** 3. 4. 5. 6.

Kodea **14** Iraupena **2.30 ordu** Ordutegia **9,45** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Urak lur azpian egiten duen bidea ulertzeko aukera izanen dugu Artetako iturburuan, baita urak bere ziklo naturalean egiten dituen etapa batzuk ere.

**TOKIA**
- Artetako iturburua

**EGUNAK**
- Astelehenetik ostiralera

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko

**HELBURUA**
- Iturburuaren paisaia interpretatzea
- Uraren naturako zikloa ezagutzea
- Ura zaintzearen garrantziaz eta beharraz sentikortzea

**BALIABIDEAK**
- Artetako iturburua bisitatzea
- Jarduera: *Zikloa naturan*
- Jarduera: *Desagertu egiten da ura lur azpian?*
- Bideoa: *Ura zure laguna da*

**BETEKIZUNAK**
- Aldez aurreko prestaketa

# Uraren zikloa hirian

Paseoa Eugiko urtegiko ertzetatik + Urtasungo edateko uren araztegia + Mendillorriko uren etxea

**Jardunaldia** **Mailak** 1. 2. **3. 4.** 5. 6.

Kodea **29** Iraupena **egun bat** Ordutegia **9,45** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**

Ura hain erraz lortzen dugunez, beharbada ahaztu egiten dugu urak egiten duen bide luzea, hartzen denetik ibaira berriz ere itzultzen dugun arte, araztu eta gero. Orduan ixten da zikloa.

**TOKIA**

- Oinezkoentzako pasealekua eta Eugiko urtegia
- Urtasungo Edateko Uren Araztegia
- Mendillorriko Uren Etxea

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**

- Bi talde/ikasgela eguneko (60 ikasle gehienez)

**HELBURUA**

- Urtegiko paisaia interpretatzea
- Ura kontsumitu ahal izateko nola tratatzen ezagutzea
- Uraren balioaz eta zaintzeko beharraz jabetzea

**BALIABIDEAK**

**1. saioa 2:30 ordu:**

- Interpretazio paseoa urtegiko ertzetatik
- Eugiko presa bisitatzea
- Urtasungo Edateko Uren Araztegia bisitatzea. Esperimentuen jarduera

**Denbora librea-bazkaria:**

- Alternatibak: Eugi herria edo Mendillorriko ur-biltegietako lorategiak

**2. saioa 1:30 ordu**

- Mendillorriko Uren Etxea bisitatzea. Erakusketa, *Uraren bidaia*: ikus-entzunezko proiekzioak 3 dimentsiotan eta maketak
- Ur-biltegi zahar eta berriak bisitatzea
- Jardunbide egokiei buruzko jarduera

## Jarduerei laguntzeko baliabideak

Laguntzeko unitate didaktikoa

### Maite eta ura



**Baliabidea honako jarduera hauetara bideratzen da:**

- Zer egiten dut ura zaintzeko?
- Zikloa naturan eta lur azpiko urak

**Unitate didaktikoak ondokoa biltzen du:**

- Ikaslearen lan-koadernoa
- Irakaslearen gidaliburua
- Musika eta uraren soinuak biltzen dituen CDa
- Horma-irudiak
- Margolan artistikoak

**Jardueran izen-ematean eskatu behar da baliabidea**

DVDa

### Water is your friend
### Ura zure laguna da



**Baliabidea honako jarduera honen barnean dago:**

- Zer egiten dut ura zaintzeko?
- Zikloa naturan eta lur azpiko urak

*Ura zure laguna da* DVDa ingelesez ere badago, Mendillorriko eta Artetako ur-biltegietan ikusteko zein maileguan eskatzeko ikasgelan aurretik lantzeko

# Instalazioak ezagutzeko bisitak



**TOKIA**
- Desberdina bisitaren arabera

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde bisita bakoitzeko

**HELBURUA**
- Ur horniketa eta saneamendu prozesua ezagutzea
- Uraren erabilera eta kontsumo arduratsua sustatzea

**EDUKIAK**
- Hornidura-iturriak
- Ura edangarri bihurtzeko eta banatzeko prozesuak
- Ura araztea
- Kontsumo arduratsuko ohitura eta erabilerak

**BALIABIDEAK**
- Bideoak o diaporamak
- Maketak eta erakusketak
- Bisita gidatua instalaziora
- Zenbait jarduerak uraren gaineko ohitura eta erabilera eraginkorrei buruzko jarduera osagarria barne hartzen dute

### Artetako iturburua + Egillorko edateko uren araztegia eta *Uraren erabilera eraginkorra* erakusketa

**Bisita** — **Mailak** 1. 2. **3. 4.** 5. 6.

Kodea **3** Iraupena **2.30 ordu** Ordutegia **9,45** **Ikasturte osoa**

### Eugiko urtegia + Urtasungo edateko uren araztegia + Mendillorriko ur-biltegiak

**Bisita** — **Mailak** 1. 2. **3. 4.** 5. 6.

Kodea **6** Iraupena **3 ordu** Ordutegia **9,45** **Ikasturte osoa**

Mendillorriko ur-biltegietatik hasteko aukera dago. Kintoan geratuko diren bisitek Eugiko urtegiaren ertzean dagoen oinezkoentzako pasealekuaz goza dezakete. Interpretazio panelak daude bertan.

### Artetako iturburua + IIHZ berria *Lur azpiko urak* + Egillorko edateko uren araztegia

**Bisita** — **Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**

Kodea **10** Iraupena **3 ordu** Ordutegia **9,45** **Ikasturte osoa**

Artetako IIHZk erakusketak, proiekzioa eta panelak berritu ditu.

### Arazuriko araztegia + ohituren gaineko jarduera + paseoa Arga ibaian zehar

**Bisita** — **Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**

Kodea **34** Iraupena **3 ordu** Ordutegia **9,30** **Ikasturte osoa**

Arazuriko araztegira egindako bisitek Arga ibaiaren zati horren ibai-paisaia ezagutzea helburu duen paseo laburra bilduko dute osagarri gisa.

# Eugi eta natura-baliabideen aprobetxamendua

BERRIA

**Bisita** — **Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**

Kodea **37** Iraupena **3 ordu** Ordutegia **9,45** **Ikasturte osoa**



**DESKRIPZIOA**
Eugi, Arga ibaiaren burualdean, natura-baliabideen aprobetxamendu tradizionalaren adibidea da: ura, basoa eta meatzaritza.

**TOKIA**
- Eugi herria
- Urtasungo edateko uren araztegia

**HELBURUA**
- Natura-baliabideak aprobetxatzeko moduak ezagutzea
- Ura natura-baliabide baliotsu eta mugatu gisa ikustea, arduraz erabili beharrekoa

**EDUKIAK**
- Eugiko ingurua interpretatzea
- Uraren hornidura Iruñerrian: kalitateko ura eskura izatea eta horren bermea

**BALIABIDEAK**
- Erreferentzia historikoari buruzko Eugiko zentroa
- Oinezkoendako ibilbidea urtegiaren ertzetik
- Urtasungo edateko uren araztegia eta laborategiko jarduera

# Arteta, aberastasun handiko tokia

BERRIA

**Bisita** **Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**

Kodea **19** Iraupena **3 ordu** Ordutegia **9,45** **3. hiruhilekoa**



**DESKRIPZIOA**
Bertan ibiliz eta bertako baliabideak ezagutuz mendiaren kanpoaldeko zein barnealdeko paisaiaren jatorri geologikoa ulertuko da, baita iturburua nola sortu zen eta gatzagen itsaso-jatorria ere.

**TOKIA**
- Artetako iturburua

**EGUNAK**
- Astelehenetik ostiralera
- 3. hiruhilekotik aurrera

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Bi talde/ikasgela bisita bakoitzeko

**HELBURUAK**
- Akuiferoaren sorrera eta Artetako gatzagak ezagutzea
- Uraren, ingurunearen eta ohituren balioaren inguruan sentikor bihurtzea

**EDUKIAK**
- Paisaia interpretatzea
- Gatza lortzeko prozesuak, erabilerak eta ohiturak
- Lur azpiko urak

**BALIABIDEAK**
- Artetako iturburua
- IIHZ berria *Lur azpiko urak*
- Ibilbide gidatua eta Artetako gatzagak bisitatzea
- Gatzaren ezaugarriei eta erabilerari buruzko jarduera

## Jarduerei laguntzeko baliabideak

Bisita gida

### Saneamendua eta arazketa Iruñerrian



**Laguntza-gida bisita honetarako:**
- Arazuriko araztegia + jarduera + paseoa Arga ibaian zehar

Dokumentazioa eta jarduerak biltzen ditu

Bisita gida

### Ur-hornidura Iruñerrian: Arteta - Egillor

BERRIA



**Laguntza-gida bisita hauetarako:**
- Artetako iturburua + Egillorko edateko uren araztegia eta *Uraren erabilera eraginkorra* erakusketa
- Artetako iturburua + IIHZ berria *Lur azpiko urak* + Egillorko edateko uraren araztegia
- Arteta, aberastasu handiko tokia

Dokumentazioa eta jarduerak biltzen ditu

Bisita gida

### Ur-hornidura Iruñerrian: Eugi - Urtasun

BERRIA



**Laguntza-gida bisita hauetarako:**
- Eugiko urtegia + Urtasungo edateko uren araztegia + Mendillorriko ur-biltegiak
- Eugi eta natura-baliabideen aprobetxamendua

Dokumentazioa eta jarduerak biltzen ditu

# Hiri garraioa eta mugi-kortasun iraunkorra

| | | |
|---|---|---|
| Banator eta banoa | Tailerra ikasgelan | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |
| Joan-etorriak eskualdeko hiri garraioan | Pantomima jarduera | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |

**BERRIA! *ONLINE*ko IZEN-EMATEA!**
Jardueretan izena emateko, gure webgune-aren bidez egin beharko da: **www.mcp.es**

# Banator eta banoa

**Tailerra ikasgelan** **Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**

Kodea **150** Iraupena **ordu bat** **Ordutegi librea** **Ikasturte osoa**




**DESKRIPZIOA**
Dugun hiri eredua eta bertan joan-etorriak egiteko modua ezagutzeak ingurumen arloan hobetzeko beste alternatibak proposatu eta baloratzen lagunduko digu .

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Talde/ikasgela bat tailer bakoitzeko
- Orpoz orpoko zenbait tailer egunean

**HELBURUA**
- Hiri esparruan joan-etorriak egiteko ohiko moduak eta euren ondorioak aztertzea

**EDUKIAK**
- Iruñerritik joan-etorriak egiteko ditugun ohiturak
- Mugikortasunak ingurunean eta pertsonen bizi kalitatean dituen ondorioak

**BALIABIDEAK**
- Jarduera ludiko eta didaktikoa
- Eskualdeko Hiri Garraioan taldeak bidaiatzeko balio duen txartela emango zaie

**BETEKIZUNAK**
- Hezitzaile bat talde/ikasgela bakoitzeko
- Aldez aurreko prestaketa

# Joan-etorriak eskualdeko hiri garraioan

**Pantomima jarduera** **Mailak** 1. 2. 3. 4. **5. 6.**

Kodea **150** Iraupena **35 minutu** **Ordutegi librea** **Ostirala**



**DESKRIPZIOA**
Umorezko pantomima jarduera hiri garraioko autobus batean egindako ibilbidean.

**PARTE-HARTZAILE KOPURUA, GEHIENEZ**
- Talde/Ikasgela bat saio bakoitzeko
- Orpoz orpoko zenbait saio.

**HELBURUA**
- Elkarbizitzarako arau batzuk modu ludikoan bereganatzea.
- Garraio kolektiboaren erabilera arduratsua errazten duten arauak ezagutzea

**EDUKIAK**
- Garraioa eta mugikortasun iraunkorra
- Eskualdeko Hiri Garraioa
- Eskualdeko Hiri Garraioaren erabiltzaile gisa izan behar diren jardunbide egokiak

**BALIABIDEAK**
- Pantomima Kollins Clownen eskutik
- Txartel-zorro bana emango zaie

**BETEKIZUNAK**
- *Banator eta banoa* tailerrean parte hartzea

## Jarduerei laguntzeko baliabideak

Laguntzeko unitate didaktikoa

### Joan-etorrian dabilen eskualdea




**Baliabidea honako jarduera hauetara bideratzen da:**
- Banator eta banoa

**Unitate didaktikoak ondokoa biltzen du:**
- Ikaslearen lan-koadernoa
- Lan irteera
- Irakaslearen gidaliburua
- Dokumentazio-txostena

Laguntzeko baliabidea

### Garraio-motxila



**Mugikortasuna hiri ingurunean aztertzera bideratutako jarduera**

**Motxilak honako hauek ditu barne:**
- Soinu-eskala eta soinu-ibilbidea biltzen dituen CDa
- Pultsu-kontagailua
- Nibela eta zinta metrikoa
- Iruñerriko eta Eskualdeko Hiri Garraioaren horma-irudiak

**Motxila maileguz uzten da astebetean**

## Arduraz jokatzeko ingurumenerako heziketa
## 2011/2012 jardueren laburpena
# LEHEN HEZKUNTZA

## Kontsumoa, hondakinak eta birziklapena

| Kod. | Jarduera | Iraupena | Erabilgarri | Ordutegia | Mailak |
|---|---|---|---|---|---|
| 47 | Tailerra ikasgelan: Arte-sormena hondakinak erabilita: belardi bat | 2 ordu | Ikasturte osoa | librea | 1. **2.** 3. 4. 5. 6. |
| 63 | Tailerra ikasgelan: Nik kontsumitzen dut eta 3R delakoak betetzen ditut | Ordu bat | Ikasturte osoa | librea | 1. 2. **3.** **4.** 5. 6. |
| 58 | Tailerra ikasgelan: Energiaz beteriko konpost-ontzia | 1.30 ordu | Ikasturte osoa | librea | 1. 2. **3.** **4. 5. 6.** |
| 67 | Tailerra: Nola egin paper birziklatua | 1.30 ordu | Ikasturte osoa | librea | 1. 2. **3.** **4. 5. 6.** |
| 49 | Tailerra: Hondakinik gabeko hamaiketakoa (BERRIA 3.) | Ordu bat | Ikasturte osoa | librea | 1. 2. 3. 4. **5.** 6. |
| 52 | Bisita: Gongorako HHTZ + hondakinen ingurumen ikasgela | 3 ordu | Ikasturte osoa | 9,30 | 1. 2. 3. **4. 5. 6.** |

## Iruñerriko ibai-parkea

| Kod. | Jarduera | Iraupena | Erabilgarri | Ordutegia | Mailak |
|---|---|---|---|---|---|
| 310 | Bisita: Ezagutu parkearen bizia: Atarrabiako eremua | 2.30 ordu | 1. eta 3. hiruhilekoak | 9,30 | **1. 2.** 3. 4. 5. 6. |
| 311 | Bisita: Ezagutu parkearen bizia: Barañaingo eremua | 2.30 ordu | 1. eta 3. hiruhilekoak | 9,30 | **1. 2.** 3. 4. 5. 6. |
| 314 | Bisita: Paisaiak ibaiaren inguruan: Burlatako Nogalera eremua | 2.30 ordu | 1. eta 3. hiruhilekoak | 9,30 | 1. 2. **3.** **4.** 5. 6. |
| 330 | Bisita: Urak errotak mugiarazten ditu: San Andres errota (BERRIA) | 2.30 ordu | Ikasturte osoa | 9,30 | 1. 2. 3. 4. **5.** 6. |
| 316 | Bisita: Ibai bat, mila erabilera: Atarrabiako pilategia | 2.30 ordu | Ikasturte osoa | 9,30 | 1. 2. 3. 4. 5. **6.** |

BERRIA
*ONLINE*ko
IZEN EMATEA
**WWW.MCP.ES**
**Jardueretan izena emateko, gure webgunearen bidez egin beharko da**

## Ura: hornidura eta saneamendua

| Kod. | Jarduera | Iraupena | Erabilgarri | Ordutegia | Mailak |
|---|---|---|---|---|---|
| **26** | **Bisita: Zer egiten dut ura zaintzeko? Mendillorriko ur-biltegiak** | **2.30 ordu** | **Ikasturte osoa** | **9,30** | **1. 2.** 3. 4. 5. 6. |
| **14** | **Bisita: Zikloa naturan eta lur azpiko urak. Artetako iturburua** | **2.30 ordu** | **Ikasturte osoa** | **9,45** | **1. 2.** 3. 4. 5. 6. |
| **29** | **Jardunaldia: Uraren zikloa hirian** | **Egun bat** | **Ikasturte osoa** | **9,45** | 1. 2. **3. 4.** 5. 6. |
| **3** | **Bisita: Artetako iturburua + Egillorko edateko uren araztegia** | **2.30 ordu** | **Ikasturte osoa** | **9,45** | 1. 2. **3. 4.** 5. 6. |
| **6** | **Bisita: Eugiko urtegia + Urtasungo edateko uren araztegia + Mendillorriko ur-biltegiak** | **3 ordu** | **Ikasturte osoa** | **9,45** | 1. 2. **3. 4.** 5. 6. |
| **10** | **Bisita: Artetako iturburua + IIHZ berria *Lur azpiko urak* + Egillorko edateko uraren araztegia** | **3 ordu** | **Ikasturte osoa** | **9,30** | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |
| **34** | **Bisita: Arazuriko araztegia + ohituren gaineko jarduera + paseoa Argan zehar** | **3 ordu** | **Ikasturte osoa** | **9,30** | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |
| **37** | **Bisita: Eugi eta natura-baliabideen aprobetxamendua** BERRIA | **3 ordu** | **Ikasturte osoa** | **9,45** | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |
| **19** | **Bisita: Arteta, aberastasun handiko tokia** BERRIA | **3 ordu** | **3. hiruhilekoa** | **9,45** | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |

## Hiri Garraioa eta mugikortasun iraunkorra

| Kod. | Jarduera | Iraupena | Erabilgarri | Ordutegia | Mailak |
|---|---|---|---|---|---|
| **150** | **Tailerra ikasgelan: Banator eta banoa** | **Ordu bat** | **Ikasturte osoa** | **Librea** | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |
| **160** | **Pantomima-jarduera: Joan-etorriak eskualdeko hiri garraioan** | **35 minutu** | **Ostirala** | **Librea** | 1. 2. 3. 4. **5. 6.** |

BERRIA
*ONLINE*ko IZEN EMATEA!
**WWW.MCP.ES**
**Jardueretan izena emateko, gure webgunearen bidez egin beharko da**

## Eskaerak *online* kudeatzeko aukera berria

**Ikasturte honetan, jarduerak eskatzeko prozesua hobetze aldera, kudeaketa *online* egiteko aukera jarri dugu abian.**

**Kontu bakarra zentroarentzat**
**Zentro bakoitzari kontu eta erabiltzaile-izen bat emanen zaio; horren bidez, tramite guztiak egin, erreserben egoera egiaztatu eta aldaketak egiteko aukera izanen du. Zuzendaritza-taldeak behar duen informazioa izango du.**

**Jardueren katalogoa kontsultatzeaz gain, irakasleek ikasleentzako jardueren eskaera egin dezakete modu telematikoan, baita zentroaren erreserba-historiala aztertu ere.**

**Eskaerak egiteko laguntzailea**
**Sistema gidatu batek errazten du jardueren eskaintzan sartzea  eta intereseko gaiak aukeratzea; halaber, zer hezkuntza-mailatara zuzentzen diren ere adierazten du.**

**Informazioa: 948 203 444**